Ayuntamiento Udala
Irun
www.irun.org

2022ZAUN0004

Ayuntamiento Udala
Irun

Tokiko Gobernu Batzarrak onetsia 2022/3/23 eguneko bilkuran.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 23/3/2022.

Irun, 23/3/2022
IDAZKARIA / LA SECRETARIA

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

OSTATU-ESTABLEZIMENDUETAKO OSTATU-ZERBITZU KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOA
ACUERDO MARCO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ALOJAMIENTO EN ESTABLECIMIENTOS HOSTELEROS

***– PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –**

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0004

1. **XEDEA** Deialdi honen xedea da esparru-akordio bat izenpetzea Irungo Udaleko Gizarte Ongizatearen arlokobulegoetatik 5 km-ko eremuan HOTEL ESTABLEZIMENDUETAN OSTATU ZERBITZUAK emateko gai den enpresaburu batekin edo batzuekin, baldintza teknikoen plegu honetan xedatutakoaren arabera. Establezimenduei dagokienez: - Gizarte Ongizate Arloko bulegoetatik 5 km-ko eremuan egon beharko dute. - Ostatu-jarduera bere kategoriaren eta sailkapenaren arabera gauzatzeko araudi sektorialak exijitutako betekizun guztiak bete beharko dituzte. Salbuespenez, prozedura honetan hautatu ez diren enpresak kontratatzea baimendu ahal izango da, inguruabar bereziek hala aholkatzen badute, baita Irundik kanpo izanda ere (pertsonari eta/edo familiari babes handiagoa emateko, Irunen tokirik ez dagoelako, etab .).	1. **OBJETO** Es objeto de la presente convocatoria la suscripción de un acuerdo marco con uno o varios empresarios capaces de prestar SERVICIOS DE ALOJAMIENTO EN ESTABLECIMIENTOS HOSTELEROS situados en un radio de 5 km desde las oficinas del Área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Irun, con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego de condiciones Técnicas. Los establecimientos hosteleros deberán: - Estar situados en un radio de 5 km de distancia desde las oficinas del Área de Bienestar Social. - Cumplir todos los requisitos exigidos por la normativa sectorial para el ejercicio de la actividad de hospedaje en función de su categoría y clasificación. Excepcionalmente, podrá autorizarse la contratación de empresas no seleccionadas en este procedimiento cuando circunstancias particulares así lo aconsejen, incluso localizadas fuera del municipio de Irun (para proporcionar una mayor protección a la persona y/o familia, por razones de no disponibilidad de plazas en Irun, etc..).
2. **ESKUMENEN JUSTIFIKAZIOA ETA AURREKARIAK** Irungo Udalak hotel-establezimenduak kontratatu beharra dauka, ostatu-zerbitzuak emateko, honako araudi hauetan jasota geratuta dagoen eskumen-obligazioari erantzuteko: – 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-	2. **JUSTIFICACION COMPETENCIAL Y ANTECEDENTES** El Excmo. Ayuntamiento de Irun precisa de la contratación de establecimientos hosteleros con el objetivo de prestar servicios de alojamiento para responder a una obligación competencial que queda recogida en las siguientes normativas: – La Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de

administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa; horren 1. artikuluak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du) udalerriaren beraren eskumena dela ezartzen du (25.1e) artikulua) «Gizarte-premia duten egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta».	racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, en su artículo 1 que modifica la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, establece como competencia propia del Municipio (art. 25.1e) la " Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social".
– 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; horren 22. artikuluan lehen mailako gizarte-zerbitzuak ezartzen dira, eta, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu udalen ardura gisa: «Gauez abegi egiteko zerbitzuak» eta «ostatu emateko zerbitzuak».	– En la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, se establece en su artículo 22 los Servicios Sociales de atención primaria, entre los que se menciona: "servicios de acogida nocturna" y "servicios de alojamiento" como responsabilidad municipal.
– 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio- eta zerbitzu-zorroari buruzkoa. Horretan, maila bakoitzeko euskal administrazio publikoen obligazioa zehazten da, derrigorrez hornitu beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez. Alde horretatik, udalaren eskumen gisa jasotzen dira «gauez abegi egiteko zerbitzua», gizartetik baztertuta dauden pertsonentzako intentsitate txikiko zerbitzu gisa, eta «ostatu emateko zerbitzuak», gizarte-larrialdi edo -premia baten ondorioz epe laburreko egonalid bat behar dute pertsona edo bizikidetza-unitateei zuzenduak.	– En el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, donde delimita la obligación de cada nivel de las administraciones públicas vascas respecto a los servicios y prestaciones económicas de obligada provisión. En este sentido se recogen como competencia municipal: " servicio de acogida nocturna" como dispositivo de baja intensidad para personas en situación de exclusión y los "servicios de alojamiento" dirigidos a personas y unidades convivenciales que requieren una estancia de corta duración ante una situación de emergencia o urgencia social.
Ildo horretan, Udalak badu gauez abegi egiteko intentsitate txikiko zerbitzu bat gizartetik baztertuta dauden pertsonentzat. Zubia zentroan eskaintzen da, eta oinarrizko prestazioak ematen dira gaua pasatzeko, mantenurako eta norbere burua garbitzeko. Horrez gain, larrialdiko udal-etxebizitzak ere badauzka Udalak, eta horien bidez zerbitzua ematen zaie indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta larrialdi-egoera baten ondorioz aldi baterako ostatu-beharrak dituzten bizikidetza-unitateei.	En este sentido este Ayuntamiento cuenta con un servicio de acogida nocturna de baja intensidad para personas en situación de exclusión, donde se ofrecen prestaciones básicas de pernocta, manutención e higiene personal, el centro Zubia, así como de una red de viviendas de emergencia municipales donde se atiende tanto a mujeres víctimas de violencia machista como a unidades de convivencia con necesidades de alojamiento temporal por una situación de urgencia.
Hala ere, beharrezkoa da beste ostatu-zerbitzu osagarri bat izatea, ezohiko egoeretan ostatu emateko hotzaren dispositiboa aktibatuta dagoenean (dispositibo hori tenperaturak nabarmen jaitsiko direla aurreikusiz aktibatzen da, eta ostatua, edari beroa eta gosaria eskaintzen die udalerrian dauden eta gaua igarotzeko etxebizitzarik edo leku egokirik ez duten etxerik gabeko pertsonei) eta ezin denean edo ez denean egokia lehen aipatutako ostatu-zerbitzuen bidez erantzutea.	No obstante, existe la necesidad de contar con otro tipo de servicio complementario que preste un alojamiento a situaciones excepcionales durante el periodo de activación del Dispositivo del frío (este dispositivo se activa en previsión de un fuerte descenso en las temperaturas y ofrece alojamiento, bebida caliente y desayuno a personas sin hogar, mayores de edad, que se encuentren en el municipio y que no dispongan de vivienda o lugar adecuado para pernoctar) , así como en ocasiones en las que no es posible o no es adecuado que sean atendidas desde los alojamientos anteriormente señalados.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Horregatik guztiagatik, Gizarte Ongizateko arloak ohiko baliabideen (gizarte-larrialdiko etxebizitzak eta gauez abegi egiteko zentro) osagarri izango den programa bat eskeintzen jarraitu nahi du, hoteletan ostatu emateko, gizarte-arrisku eta -beharreko egoeretan dauden pertsona edo familientzat, ohiko etxebizitza aldi baterako galdu dutelako (istripu edo kaleratze baten ondorioz, aurri egoeran dauden etxebizitzen edo etxea kentzearen ondorioz), familiako gatazken ondorioz (tratu txarrak, ohiko bizilekutik botatzea, etab.) edo ostaturik ez izateagatik bat-bateko eta aldi baterako egoerak direla eta. Era berean, programa horren onuradun izango dira gizarte-arrisku eta -ahultasun egoeran dauden etxegabeak ere, Hotzaren Dispositiboa aktibatuta dagoenean.	Por todo ello, el Área de Bienestar Social quiere seguir contando un programa complementario a los recursos ordinarios (viviendas de emergencia social y centro de acogida nocturna) para proporcionar alojamiento en hoteles, por un lado para personas o familias en situación de riesgo y necesidad social como consecuencia de la pérdida temporal de la vivienda habitual, ya sea por siniestro, desalojo (casos de viviendas en ruina o desahucios), conflictos familiares (malos tratos, expulsiones del hogar habitual, etc.) o la carencia de alojamiento por unas situaciones sobrevenidas y temporales, y por otro, para personas sin hogar en situación de riesgo y vulnerabilidad social durante el periodo de activación del Dispositivo del frío.
3. **ERANTZUN BEHARREKO EGOERAK** Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria Arloko Lehen Mailako Zerbitzutik baloratzen denean babesgabetasun-egoera bat dagoela pertsonek/familiek ostaturik ez dutelako, ostatu bat eskaintzen zaie interesdunei, oinarrizko behar-egoera horri erantzuteko. Horrela, hotel-establezimenduetan gaua pasatzeko tokia emango zaie egoera horretan dauden pertsonei. Era berean, mantenua emango zaie (gosaria, bazkaria eta afaria), Lehen Mailako Zerbitzuak beharreko baderitzo. Honela, honako hauek erantzun nahi dira: • Larrialdiko egoerak (kausa naturalengatik edo bizitokirik ez edukitzeagatik ustekabeko egoera batek eragindako egoerak). • Hotzaren dispositiboa (kalean bizi direnei ostatu bat ematea tenperatura baxuak aurreikusten direnean). • Edo, egoeraren hasierako diagnostikoan oinarrituta, modu planifikatuan baloratzen bada baliabidea egokia dela. Zerbitzu horiek doakoak izango dira onuradunentzat.	3. **SITUACIONES A ATENDER** En los casos en los que desde el Servicio de Atención Primaria del Área de Bienestar Social, Educación y Juventud se valora que existe una situación de desprotección como consecuencia de que personas/familias carezcan de alojamiento , se ofrece a las personas interesadas un alojamiento con el fin de responder a esta situación de necesidad básica. De esta forma, se proporcionarán a las personas que se encuentren en esta situación, plazas en centros hosteleros en dónde pernoctar. Asimismo se proporcionará la manutención (desayuno, comida y cena) en el caso de que el Servicio de Atención Primaria lo considere necesario. De esta forma se pretende responder a: • Situaciones de urgencia (situaciones producidas por un hecho no previsto debido a causas naturales o provocadas ante la carencia de alojamiento) • Dispositivo del frío (alojamiento a personas en situación de calle cuando se prevea, una baja temperatura). • O situaciones en las que de forma planificada se valora que es el recurso adecuado en base al diagnóstico inicial de la situación. Estos servicios serán gratuitos para las personas beneficiarias.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

4. PERTSONA ONURADUNAK Gure udalerrian gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden pertsonak edo familiak, udalerrian erroldatua egon edo ez: izan daiteke ohizko etxebizitza aldi baterako galdu dutelako, izan daiteke istripua izan dutelako, izan daiteke etxegabetu dituztelako (aurri-egoerako kasuak edo etxegabetzeak), izan daiteke indarkeria matxistagatik, familian gatazkan dituztelako (familia barruko indarkeria, ohiko etxetik botatzea, etab.) edo izan daiteke bizitokirik ez dutelako etxebizitzarik bat-bateko eta aldi baterako egoera batzuen ondorioz. Ostatua emango zaie, halaber, kalean bizi diren pertsonei, zerbitzu hau erabiltzeko baimena badute, hotzaren dispositiboa aktibatuta dagoenean, plaza guztiak bete arte (15 plaza inguru). Programaren onuradunak adin nagusikoak izango dira, edo, adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta egon beharko dute.	**4. PERSONAS BENEFICIARIAS** Personas o familias que se encuentren en nuestro municipio pudiéndose tratar de personas empadronadas o no empadronadas en el municipio, en situación de desprotección social como consecuencia de la pérdida temporal de la vivienda habitual, ya sea por siniestro, desalojo (casos de viviendas en ruina o deshaucios), violencia machista, conflictos familiares (violencia intrafamiliar, expulsiones del hogar habitual, etc.) o la carencia de alojamiento por situaciones sobrevenidas y temporales. También se alojarán a personas en situación de calle que tengan permiso de acceso a este dispositivo mientras se active el dispositivo del frío y hasta cubrirse el límite de plazas (alrededor de 15 plazas). Las personas beneficiarias del programa serán mayores de edad, o en el caso de menores, éstos estarán acompañados por sus progenitores o tutores legales.
5. ZERBITZUAREN PRESTAZIOA Honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte hotel-establezimenduek (urteko 24 ordu/365 egunetan eska daitezke): 5.1 **Ostatu eta mantenu zerbitzua:** Ostatu emango da bainugela-aukera duen gela batean, eta higiene pertsonalerako oinarrizko produktuak ere emango dira (xaboia, toallak...). Aurreikusten da honako gela mota hauek beharko direla: ➢ Banako gela, bainugelarekin edo bainugela partekatuarekin. ➢ Gela bikoitza, bainugelarekin edo bainugela partekatuarekin. ➢ Gela hirukoitza, bainugelarekin edo bainugela partekatuarekin. ➢ Gela laukoitza, bainugelarekin edo bainugela partekatuarekin. Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak erabakiko du une bakoitzean zein gela-mota behar den, kasu bakoitzaren beharrak kontuan hartuta baita geletan ohe osagarri bat jartzea beharrezkoa balitz ere. Beharrak eta libre dagoen gela bat ez badatoz, zerbitzu honek erabakiko du ostatua zein baldintzatan emango den.	**5. PRESTACIÓN DEL SERVICIO** Los establecimientos hosteleros deberán prestar los siguientes servicios (que pueden ser requeridos durante las 24h / 365 días del año) : 5.1 **Servicio de Alojamiento y manutención :** Se proporcionará alojamiento en una habitación con acceso a baño y productos básicos para la higiene personal (jabón, toallas...) Se prevé que los tipos de habitación requeridos serán los siguientes: ➢ Habitación individual con baño o baño compartido. ➢ Habitación doble con baño o baño compartido. ➢ Habitación triple con baño o baño compartido. ➢ Habitación cuádruple con baño o baño compartido. El Servicio de Atención Primaria determinará en cada momento el tipo de habitación que se necesite en función de las necesidades de cada caso, así como si fuera necesaria la disposición de una cama supletoria en las habitaciones. En los casos en los que las necesidades y el tipo de habitación que esté libre no sean coincidentes, este Servicio determinará las condiciones definitivas en las que se realice el alojamiento.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Hotzaren dispositiborako programari dagokionez, ostatua ahalik eta ohe gehien duten geletan eskainiko da, kontuan izanik gela bakoitzean genero bereko pertsonak baino ez direla egongo. Ostalaritza-establezimenduek ahal den neurrian bermatu egin beharko dute zerbitzua ematen dela plazen okupazioa handia aurreiksuten denean ere (goi-denboraldia, eskualdeko ekitaldiak, etab.). Zerbitzuaren esleipendun suertatzen diren ostatu-zentroek kontratuan adierazitako instalazioetan eman beharko dute zerbitzua. Gizarte Laguntzako Zerbitzuak beharrezko ikusten duenean (jantoki sozialera edo eskola-jantokira joaterik ez dutenean), ostatu-zerbitzuaz gainera, hotel-establezimenduak mantenua ere eman beharko dio pertsona onuradunari kasuaren erreferentziazko gizarte-langilearen balorazio teknikoa egin ondoren. Kasu horretan, mantenua honako hauek egitean eta hornitzean datza: - Gosaria/edari beroa (esnekiak, kafea edo antzekoak, zerealak edo antzekoak) - Bazkaria (plater konbinatua) - Afaria (plater konbinatua) "Hotzaren dispositiboaren" programaren barruan ostatua jasotzen duten pertsonei edari beroak eskainiko zaizkie hala gauez nola goizean.	Para el Programa del Dispositivo del Frío se orientará a que el alojamiento se realice en habitaciones compartidas que cuenten con el número máximo de camas posibles, teniendo en cuenta que sólo compartirán habitación personas del mismo género. Los establecimientos hosteleros deberán garantizar en la medida de lo posible la prestación de servicios incluido en periodos donde se prevea una alta ocupación de plazas (temporada alta, eventos en la Comarca,...). Los centros hosteleros adjudicatarios de este servicio estarán obligados a que el alojamiento se preste en las instalaciones que aparecen en el contrato. En los casos en los que desde los servicios sociales municipales se considere necesario (cuando no puedan acudir al comedor social o al comedor escolar) , además del servicio de alojamiento, el establecimiento hostelero deberá proporcionar manutención a la(s) persona(s) beneficiaria(s) tras valoración técnica de la trabajadora social referente del caso. En este caso, la manutención podrá consistirá en la elaboración y suministro de: - Desayuno/ bebida caliente (lácteos, café o similares, cereales o similares) - Comida (plato combinado) - Cena (plato combinado) A las personas alojadas dentro del Programa: "Dispositivo del frío" se les ofrecerá bebida caliente tanto por la noche como durante la mañana.
6. **PROZEDURA** Honako prozedura hau bete beharko da: 1. Udal Zerbitzuek antzemango dute kasua (Gizarte Ongizatea/Udaltzaingoa). 2. Erreferentziazko gizarte-langileak egingo du egoeraren diagnostikoa; beharra baloratuko du eta onuradunaren ostatu-beharrak erabakiko ditu (gela-mota, lehentasunezko kokalekua, mantenu-beharra, ostatu-iraunaldia...).	6. **PROCEDIMIENTO** El procedimiento a seguir será el siguiente: 1. La detección del caso se realizará por parte de los Servicios municipales (Bienestar social / Policía local). 2. La Trabajadora Social de referencia realizará el diagnóstico de la situación, valorará la situación de necesidad y determinará las necesidades de alojamiento de la(s) persona(s) beneficiaria(s) : tipo de habitación, ubicación preferente, necesidad de manutención, duración del alojamiento...

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

3. Gizarte-langilea hotel-enpresarekin harremanetan jarriko da, ostatu-beharrak jakinaraziko dizkio eta onuraduna identifikatuko du.	3. La Trabajadora Social contactará con la empresa hotelera e informará de las necesidades de alojamiento e identificará a la(s) persona(s) beneficiaria(s).
4. Salbuespenez, gizarte-zerbitzuak irekitzeko ordutegitik kanpo, Udaltzaingoak kudeatuko du ostatu-beharra hotel-establezimenduarekin, eta haraino lagunduko dio onuradunari.	4. Excepcionalmente, fuera del horario de apertura de los Servicios Sociales, será la Policía local la que gestione la necesidad de alojamiento con el establecimiento hostelero, acompañando a la(s) persona(s) beneficiaria(s) hasta el mismo.
5. Pertsona guztiek Udal Zerbitzuek emandako baimena izango dute establezimendura joateko.	5. Todas las personas acudirán al establecimiento con un permiso de acceso desde Servicios municipales.
6. Nolanahi ere, kasuaren jarraipen aktiboa egingo du erreferentziazko gizarte-langileak, eta hotel-establezimenduak gorabehera ororen berri emango du, 7. klausulan ezartzen den bezala.	6. En todo caso, se realizará un seguimiento activo del caso por parte de la Trabajadora Social referente del mismo, debiendo el establecimiento hostelero comunicar toda incidencia tal y como se establece en la cláusula 7ª.
7. Enpresari jakinarazi egingo zaio, kasu bakoitzean zerbitzua amaitu denean, bai eta hotzaren dispositiboa abiarazi eta amaitzen denean ere.	7. Se comunicará a la empresa el fin de la prestación del servicio en cada caso. Así como de la puesta en marcha y la finalización del Programa del Dispositivo del frío.
8. Establezimenduak hilero igorriko dizkie Gizarte Zerbitzuei, posta elektroniko bidez: • Egindako zerbitzuengatik dagokion faktura, pertsona/familia bakoitzaren arabera banakatua, eta gela- eta mantenu-mota, halakorik egin bada. • Zerrenda bat, Word edo Excel formatuan, hilabete horretan ostatu eman zaien pertsona guztiak (izen-abizenak, identifikazio-dokumentua –NANa, ANZ, pasaportea...–) eta egonaldiaren iraupena adierazita.	8. El establecimiento remitirá mensualmente a través del correo electrónico a los Servicios Sociales municipales: • Factura correspondiente por los servicios prestados desglosada por cada persona/familia alojada y tipo de habitación y manutención si se hubiera prestado. • Listado en formato Word o Excel de las personas que han sido alojadas durante dicho mes (nombre y apellidos, documento identificativo (DNI, NIE, pasaporte,..) y días de estancia.
9. Edozein ezusteko, aldaketa edo eskaera garrantzitsu oro, udal-zerbitzuekin kontsultatu beharko da aldez aurretik.	9. Cualquier imprevisto, modificación o solicitud relevantes, deberán ser consultados previamente con los Servicios Municipales.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARIA

Firmante: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
Emisor: IZENPE
Fecha:16/02/2022 10:13:59

7. **GORABEHERAK** Hotel-establezimenduak behartuta egongo dira gizarte langileari berehala jakinaraztera, amandako zerbitzuetan edozein gorabehera gertatzen bada (jokabide-arazoak, mehatxu-jarrerak edo jarrera oldarkorrak, errespetu falta...). Era berean, hotel-establezimenduak premiaz jakinarazi beharko dio gizarte-langileari honako edozein inguruabar gertatzen bada: - Ostatu-zerbitzuaren onuradunak zerbitzua bere borondatez erabiltzen ez badu. - Baimendutakoak ez diren beste pertsona batzuek gaua pasatzen badute.	7. **INCIDENCIAS** Los establecimientos hosteleros estarán obligados a informar inmediatamente a la Trabajadora Social referente de cualquier incidencia en relación a los servicios prestados (problemas de comportamiento, actitudes amenazantes o agresivas, faltas de respeto...). De la misma forma, el establecimiento hostelero deberá informar de forma urgente a la Trabajadora Social referente en las siguientes circunstancias: - En caso de la no utilización por voluntad propia del Servicio de Alojamiento por parte de la(s) persona(s) beneficiaria(s) del mismo. - En caso de que pernocten personas diferentes a las autorizadas.
8. **BESTELAKOAK** 8.1 BERDINTASUNA Zerbitzuan egiten diren jarduera guztiek genero-ikuspegia eduki beharko dute, gizonen eta emakumeen behar eta interes desberdinak kontuan hartuta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzé aldera. Era berean, hizkuntza ez-sexista erabiliko da, bai zerbitzuaren berezko jardueran bai kontratua gauzatzerakoan zerbitzuak sortzen dituen dokumentazio guztietan edo komunikazio- eta hedapen-euskarri guztietan. 8.2 DATU PERTSONALEN TRATAERA Enpresa esleipenduna behartuta egongo da haren eta Udalaren artean hitzarmen bat sinatzera, eta hitzarmen horrek arautuko du datu pertsonalen erabilera. 8.3.- HIZKUNTZA OFIZIALAK Ostatu- eta Mantenu-zerbitzuaren gaineko informazio inprimakietan (lojamenduaren arauak, menuak...) bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko du/dute enpresa esleipendunak/esleipendunek. Abisu eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelania erabiliko dira bai erabiltzaileei begira bai eta udalari eman beharrekoak edozein dokumentu, ezusteko, aldaketa edo eskaerak bideratzeko ere.	8. **VARIOS** 8.1 IGUALDAD Todas las actividades que se realicen en el servicio deberán incorporar la perspectiva de género, en el sentido de tener en cuenta las diferentes necesidades e intereses de hombres y mujeres, con el fin de promover la igualdad de hombres y mujeres. Asimismo, se hará un uso no sexista del lenguaje, tanto en la actividad propia del servicio, como en toda la documentación o soportes de comunicación y difusión que el servicio produzca durante la ejecución del contrato. 8.2 PROTECCIÓN DE DATOS La empresa adjudicataria estará obligada a suscribir un convenio entre ella y el Ayuntamiento, convenio que regulará el tratamiento de los datos de carácter personal 8.3.- LENGUAS OFICIALES La(s) empresa/s adjudicataria/s, garantizará(n) el uso de ambas lenguas oficiales en la información sobre el servicio de alojamiento y manutención (normas de alojamiento, menús....). Los avisos y comunicaciones tanto para las personas usuarias como para el Ayuntamiento se harán en euskera y en castellano, obrándose del mismo modo para tramitar cualquier documento, imprevisto, modificación o solicitud.